

Andre arruntaren koplak

Onintza Enbeita Maguregi



Eguneroko bizitza ere bada zelebren askoa...

Xabier Lete zenak, *Gizon arruntaren koplak* jarri zituen: bertso aldrebes eta ezagunak dira, gizon baten egunerokoa kontatuz, irriz.

Onintza Enbeitak emakume baten egun arrunta azalduko digu oraingoan; doinu berean, ezberdin.

Doinua: Kantatzera noazu II **Zortziko txikia**

- 1** Iritsi nahi ta ezin posible **ote da?**
Lana, yoga, lagunak, kick boxing ta **zera!**
Erdi korrika doa batetik **bestera** emakume arrunta goizetik **gauera**.
- 2** Burkopean aurkitu ohi dut **adorea** kolpean itzaltzeko **despertadorea**.
Gosariak bueltatu artean **kordea** goizetan izaten naiz nahikoa **bordea**.
- 3** Ispiluari beha denbora **luzean** erabaki nahian zer jantzi **gorputzean**.
Baina dotorezia galtzen da **hutsean:** ahoa zabalik lo joaten naiz **busean**.
- 4** Lantokian utzita mila haserre **han** lagunekin kafea **ilunabarrean**.
Badaukat imanen bat nire **paparrean:** ardo tantak biltzeko egun **hondarrean**.
- 5** Esnatu eta dena goibel **ikusteko** egun batzutan lotan banengo **hobeto!**
Zer daukat munduari zintzo **eskaintzeko** arruntegia banaiz arrunt **izateko?**